


2007

**BOTERE PUBLIKOEN ALORREAN
GAUZATZEARI BURUZKO JARDUERA
TXOSTENA. 2007 LABURPENA**



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaularitzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

Aurkibidea

Memoria Laburpena Botere Publikoak 2007	3
2007an egindako jardueren ezaugarri nagusiak	6
Esku hartzeko arloak	6
Esku hartzeko erabilitako tresnak	7
Kolectibo hartzaileak	7
IV. Plana ezartzeko erabilitako neurriak	8
Nabaritutako Joerak	9

Botere publikoek jarduera askoz gehiago egin dituzte 2007an, 2006an baino 285 jarduera gehiago, hain justu ere. Gehikuntza hori Administrazio Orokorren jarduerari dagokio, 2006an baino % 78 txosten gehiago egin baititu 2007an (295, 2006an eta 525, 2007an). Jaurlaritzaren sailetan lan-taldeak sortu izana eta emakumeei eta gizonei buruz legegintzaldiko dokumentu programatikoak egin izana oso lagungarri izan da aurrerapauso horretan.

Ebaluazio honek aztertzen dituen hiru jarduera-ildotan ikus daiteke Administrazio Orokorreko erakundeek askoz jarduera gehiago egin dutela:

A IV. Plana ezartzeko neurriak abiarazi dira, hala nola, dokumentu programatikoak prestatu eta onartu dira, administrazioko berdintasun-unitateei buruzko dekretua onartu da eta Erakunde arteko Batzordea arautzen duen dekretua onartu da.

B Instituzioetan genero-ikuspegia txertatzeko jarduerak egin dira: bai administrazio barrurako jarduerak, bai herritarrei emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken berri emateko eta herritarrek horietan inplikatzeko jarduerak.

C Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak, sektorekakoak eta zeharkakoak, garatu dira, genero-politikak gidatzeko jakintza sortzeko, nagusiki; herritarrak sentsibilizatu dira hainbat arazoren gainean, esaterako, emakumeen aurkako indarkeriaren gainean; emakumeak ordaindutako lan-munduan sartzearekin, emakumeen aurkako indarkeriarekin eta emakumeen elkartegintza sustatzearekin lotuta dauden baliabideak edo zerbitzuak sortu edo egokitu dira; eta azkenik, arau batzuk sortu edo aldatu dira, esaterako, kirolean, enpleguan eta kulturean –besteak beste– emakumeek duten egiturazko bereizkeria ezabatzeko arauak eta askotariko bereizkeria jasaten duten emakumeei edo gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden emakumeei baliabideak emateko arauak.

Esan daiteke Foru Administrazioan ez dela aldaketa kuantitatibo esanguratsurik gertatu IV. Plana indarrean denetik –bi urte eta erdi-, nahiz eta kualitatiboki gertaera aipagarri hauek dauden:

- **Gipuzkoako Foru Aldundiak** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana onartu du.
- **Arabako Foru Aldundiak** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana onartu du, eta berdintasun-atala indartu du, genero-prestakuntza duen profesional bat gehituz. Egun bi lanpostu ditu lanpostu-zerrendan.
- **Bizkaiko Foru Aldundiak** aurrerapauso horiek eginak zituen III. Planaren indarraldian: genero-politiken eremua sortu zuen, berdintasunerako teknikarien lanpostuak sortu zituen eta Berdintasunerako Plana egin zuen, besteak beste.

Bai Bizkaiko Foru Aldundiak bai Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasunari buruzko tokiko politikak sustatzen dihardute, udaletan emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnosiak eta berdintasunerako planak egiteko. Jarduera horiek abian jartzea, Berdintasunerako 4/2005 Legeak aitortzen duenez, tokiko berdintasun-planak prestatu eta onar ditzaten sustatzeko balioko du, eta halaxe baieztatu da azken urteotan.

Toki Administrazioari dagokionez, ebaluazioaren ondoriozko emaitzek adierazten dutenez, IV. Plana ezartzeko jarduerak abian jartzearen barruan egin dira aldaketarik garrantzitsuenak:


- Berdintasunerako unitateak sortu dira: 2006an, berdintasunerako zerbitzu 2 sortu ziren, eta 2007an, berdintasunerako zinegotzigo bi.
- Erakunde barneko egiturak sortu dira: udalen barruan berdintasun-politikak koordinatu eta bultzatzeko 8 egituren sorrerari buruzko txostenak egin dira bi urte hauetan.
- Gizarte-partaidetzarako bi egitura gehiago sortu dira, eta lehendik zeudenak indartu eta bultzatzen ari dira (18, 2006ko datuen arabera).
- Berdintasunerako planei dagokienez, udalak bigarren belaunaldiko planak prestatzen eta onartzen ari direla esan daiteke. IV. planaren indarraldiaren bi urte hauetan, toki eremuan, 9 berdintasunerako II. plan onartu dira, berdintasunerako III. plan bat, berdintasunerako I. plan bat eta urteko 2 programa eragile. Bigarren belaunaldiko planak prestatu izanak (gehienak Bizkaian) argi erakusten du berdintasun-politikak sendotu egin direla udaletxe askotan (hamahirutan, jasotako informazioaren arabera).

Zalantzarik gabe, baliabide ekonomikoak, foru aldundiek eta Emakundek emandako aholkuak eta INEM-toki korporazioen bidez kontratatutako teknikariak lagungarri izaten ari dira toki eremuan berdintasun-politikak bultzatzeko. Kontuan hartu behar da Emakundek, 2006 eta 2007 artean, berdintasunerako planak eta diagnostikoak egiteko diru-zenbatekoa handitu duela: 77tik 577.000 eurora, hain zuzen ere.

2007an egindako jardueren ezaugarri nagusiak

Ardatz estrategikoak:

Mainstreaming-a, ahalduntzea eta politikako parte hartzea lehentasunezkoak izan dira erakunde publikoek 2007an bultzatu dituzten berdintasun-politiketan: 1.137 jarduerak egin dira guztira, eta horietatik % 74 bi ardatz horiei dagozkie.



Ardatz bakoitzean egindako jarduerak


- Mainstreaming-a (422)
- Bateragarritasuna (69)
- Ahalduntzea eta gizartean eta politika (420)
- Emakumeen aurkako indarkeria (226)

Esku hartzeko arloak:

Jardueren ehuneko handiena hartzen duten esku-hartzeko arloak (4) hauek dira:

Berdintasunerako Zerbitzu Orokorrak, Gizarteratzea, Kultura eta Lana.


Arlo bakoitzean egindako jarduerak



Esku hartzeko erabilitako tresnak

Esku hartzeko erabilitako tresnak

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko programak ezartzeko, hauek dira herri administrazioek gehien erabili dituzten esku-hartze tresnak: **sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea, eta baliabideak eta zerbitzuak sortu eta egokitzea.**



Erabilitako esku-hartze baliabideak


- Jakintza sortzea (143)
- Sensibilizazioa, informazioa u jendarteratzea (329)
- Prestakuntza (148)
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (365)
- Arauak sortzea eta egokitzea (93)
- Jarraipen mekanismoak sortzea eta egokitzea (59)

Kolektibo hartzaileak

Kolektibo hartzaileak

Botere publikoek egindako jardueren hartzaile nagusiak hauek dira: **Euskal gizartea, oro har; emakume-elkarteak eta Administrazioako teknikariak.**

Jarduera portzentaje handienaren hartzaile izandako taldeak



IV. Plana ezartzeko erabilitako neurriak


Plana bultzatu eta koordinatzea

30 jarduera egin dira IV. Plana bultzatu eta koordinatzeko: emakumeen eta gizonen berdintasunerako administrazio-unitateak sortu dira; erakunde barneko koordinazio-egiturak sortu dira; erakunde arteko koordinazio-egiturak sortu dira, eta gizarte-partaidetzarako egiturak.

Programazioa eta Ebaluazioa

30 programazio-jarduera egin dira 2007an. 2007an, EAEko 53 udalek dute berdintasun-plana, alegia, biztanleria kontuan hartuta, % 76,3 dira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako plan bat duten udalerriek biltzen duten biztanle portzentajea



Nabaritutako Joerak

2006an eta 2007an, administrazioentzat jarduera-ardatz bi hauek izan dira lehentasunezkoak: *Mainstreaming-a eta Ahalduntzea* eta *Politikan* parte hartzea, egiten dituzten txostenen hiru laurden baitira. Bi ardatzetan, jarduera gehiago egin dira 2007an (% 39,7 eta % 28,4 gehiago, hurrenez hurren).

- Bai 2006an bai 2007an, botere publikoek egindako jarduerak, helburu nagusi hauek lortzera bideratu dira: erakundeari ahalmena ematea genero-ikuspegia txertatzeko; gizarteak berdintasun-politiketarako duen interesa eta inplikazioa handitzea; genero-ikuspegia kulturaren arloan txertatzea; emakumeak, oro har, eta baztertuak izateko arriskuan daudenak edo askotariko bereizkeria jasaten dutenak ahalduntzea, baita emakume-elkarteak ere; emakumeek enplegua lor dezaten eta gizonak adina aukera izan dezaten laguntzea; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeak artatzeko baliabideak hobetzea.

- Nabarmentzekoa da Bateragarritasun eta Erantzunkidetasunaren ardatzak izan duen igoera. 2007an egin diren jardueren % 6,1 diren arren, ardatz horretan egin diren jarduerak % 50 gehitu dira 2006an egindakoen aldean. Botere Publikoen lehentasunezko jarduerak dira erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika bultzatzen dutenak; lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko neurriak eta horretarako laguntza-zerbitzuak ematen dituztenak; eta autonomia funtzionalik ez duten pertsonak artatzeko baliabide sozio-komunitarioak ematen dituztenak.

- Indarkeriaren ardatzean ere jarduera gehiago egin dira, % 27,7 gehiago hain zuzen. Indarkeriari dagokionez eskola-elkartean arreta eman eta bitartekotza egitea oso esanguratsu bilakatzen ari da esku-hartzeko programen artean. Aurreko urteetako jarduerak tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeentzat baliabideak hobetzera bideratu dira. Orain, berriz, jarduera-ildo horiei eusteaz gain, erakunde publikoak eskoletan prebentzioari lehentasuna ematen hasi dira, eskola-elkartean bertan esku hartuz; Nahiko programa da aipagarriena.

- Esku-hartzeko arloak aztertuta, Kulturak eta Gizarteratzeak dute betetze-mailarik handiena (kopuru handia eta jardueren aniztasuna, programa eta helburuei dagokienez). Bi alor horietan lanean ari dira erakundeen barruan genero-ikuspegia txertatzen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak, sektorekakoak eta zeharkakoak, sustatzen.

- **Genero-ikuspegia txertatzeko** egindako jarduerari dagokienez, jarduera gehiago egin dira sentsibilizazio, informazio eta dibulgazioaren inguruan; prestakuntza eta baliabide eta zerbitzuen inguruan, berriz, ez da aldaketa esanguratsurik gertatu kopuruari nahiz nolakotasunari dagokienez. Joera hori, segur aski, 2007an egindako aldaketa garrantzitsuei esker aldatuko da. Hauek dira aldaketak: Eusko Jaurlaritzako sailetan, organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten unitate administratiboak arautzen dituen dekretuaren onarpena; Administrazio Orokorrean legegintzaldiko dokumentu programatikoen prestakuntza; foru aldundietan berdintasunerako administrazio-unitateen tinkotzea; eta foru aldundiek tokiko berdintasun-politikak bultzatzeko egindako hautua.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sektorekako eta zeharkakoei dagokienez, jarduera kopuruak gora egin du 2007an, % 34,1 hain zuzen ere. Esku-hartzeko arlo berberak nagusitzen dira (Zerbitzu Orokorrak, Kultura, Gizarteratzea eta Lana), nahiz eta pisu espezifikoak behera egin duen Osasuna, Hezkuntza eta Hirigintza eta Ingurumenaren arloei dagokienez.

- Gutxi gorabehera jarduera mota hauen % 20k zerikusia du emakumeen aurkako indarkeriarekin; ehuneko hori egonkor dago azken urteotan.

- Emakumeen ahalduntzeak ere lehentasunezko lan-ildo izaten jarraitzen du. Emakumeei prestakuntza orokorra emanez, elkartegintza sustatuz eta emakumeek enplegua lor dezaten eta gizonen lan-baldintza berberak izan ditzaten sustatuz egiten da ahalduntzea. Ardatz horri dagokionez, nabarmentzekoa da ahalduntze-eskolak abian jarri izana Bizkaiko Udal batzuek (Basauri, Ermua, Getxo eta Ondarroa) eta Gipuzkoako udal batzuek (Eibar, Irun, Donostia). Eskola horien helburua da emakumeek politikan eta gizartean parte har dezaten sustatzea, politika publikoetan eragina izateko. Jauzi kualitatibo handia da: ez gara ekintza puntual eta sakabanatuez ari; aitzitik, aurrerapausoa da emakumeak ahalduntzeko tresnak eta baliabideak sortzeko eta prozesuak aztertu eta sistematizatzeko bidean. Emakunde ere hiru lurraldeetan emakume-elkarteak sortzea sustatzen ari da. Izan ere, elkarteak sortuz, emakumeak ahalduntzeko eta gizartean eta politikan parte har dezaten sustatzeko bidea sendotzen ari gara.